FIRMADO POR
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
25/09/2024

FIRMADO POR
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
26/09/2024

SELLO
Nº Salida en Registro: 538 / 2024
26/09/2024

**BASABURUKO UDALA**
**CIF P 3104900 J**
***31866-Jauntsarats***
***(Nafarroa)***

Basaburuko udaleko alkateak ondoren zehazten den ebazpena agindu du

***EBAZPENA***

2022ko abenduaren 19ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion Ttikiena haur eskolako garbiketa lanpostua oposizio- leihaketa bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 legean xedatutakoaren arabera.

Aurkeztutakoen behin betiko zerrenda onartu eta argitaratu zen Basaburuko Udaleko web orrian eta oinarrietan zehaztu bezala azterketak burutu ziren.

Oposizio lehiaketa amaituta, Basaburuko udaleko web orrietan argitaratu zen puntuazioarik handiena lortu zuen izangaia izendatzeko proposamena, deialdian eskatutako baldintzak betetzen zituena eta deitutako plaza-kopuruan sartzen zena.

Deialdian eskatutako agiriak aurkeztu ondoren eta bertan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuta, bidezkoa da bera izendatzea eta plaza esleitzea.

Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau,

EBAZTEN DUT

1.- Mª Paz Etxarri Etxegia lan-kontratuko langile finko izendatzea, Ttikiena Haur Eskolako garbiketa lanpostua betetzeko.

2.- Ttikiena Haur Eskolako garbiketa lanpostua hutsa esleitzea.
- Izen-abizenak: Mª Paz Etxarri Etxegia.
- Plaza: Ttikiena Haur Eskolako garbiketa lanpostua
- Maila: E
- Araubide Juridikoa: lan-erregimenean kontratatua
- Hizkuntzak: euskara B1 idatzia, B2 ahozkoa

FIRMADO POR
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
25/09/2024

FIRMADO POR
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
26/09/2024

SELLO
Nº Salida en Registro: 538 / 2024
26/09/2024

- Lanaldia: %75.34

3.- Izendatutako izangaia ebazpenaren egunetik hilabeteko epean hartu beharko du lanpostua, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 foru legearen 6.4 artikuluaren arabera.

Egun horretan, eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostua hartzen ez badu toki-erakunde deitzaileko lan-kontratuko langile finko izateko eskubide guztiak galduko ditu.

4.-Ebazpen hau, dagozkion ondorioak izan ditzan, Nafarroako Aldizkari Ofizialen argitaratzea baita Basaburuko udaleko web orrian. Ebazpen honen aurka nahi izanez gero, honako errekurtso hauetako bat aurkez daiteke:

Zuen ezagutzarako jakinarazten dut eta ohartarazten dizuet akordio honen aurka ondorengo helegiteak aurkeztu ditzazkezuela:

a) *Berraztertzeko helegitea erabakia hartu duen organoaren aurrean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik hilabete bateko epean*
b) *Administrazioarekiko auzi helegitea Nafarroako Administrazio auzi epaitegian bi hilabeteren buruan akordioa jaso eta gero.*
c) *Jasotze helegitea Nafarroako Auzitegi Administratiboan hilabete baten buruan erabakia jaso eta gero.*

Jauntsaratsen, 2024ko irailaren 24an.

Alkatea

Izp: Santos Etxegia Oronoz

Idazkaria

Izp: Lucia Beloqui Iriarte

FIRMADO POR
Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONOZ
25/09/2024

FIRMADO POR
La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
26/09/2024

SELLO
Nº Salida en Registro: 538 / 2024
26/09/2024

Asunción kalea, 7 - Jauntsarats (Nafarroa) – C.P. 31866 – Tel. 948 50 30 35; udala@basaburua.eus